



BANDOA

2020ko urriaren 22an Osasun sailburuak emandako agindua gaurtik aurrera indarrean dago, eta, orain arte indarren zeuden arauetz gain, honako hauek agintzen eta gomendatzen ditu, besteak beste:

- Elkarreak itxita egongo dira, eta haietan edozein motatako jarduerak egitea galarazita dago.
- Taberna eta jatetxeek 00:00ak baino lehen itxi beharko dute egunero, jaiegunak barne.
- Maskara nahitaez erabili behar da une oro, kontsumitzeko unean izan ezik. Mesedez, bete araua eta ez zaildu gehiago tabernarien lana.
- Ez elkartu sei pertsona baino gehiago, ez espazio publikoan ezta pribatuan ere.

Inguruko herrietan ez ezik gure herrian ere positibo-kopurua gora doa, eta litekeena da gero eta kasu gehiago izatea datozen egunetan. Hori dela eta, gogorarazi nahi dizuegu zaintza-sarea antolatuta daukagula janaria edo botikak erosteko, eta zaborra ateratzeko. Behar izanez gero, deitu edo idatzi mezu bat 616758758 zenbakira.

Daukagun egoera kontuan hartuta, mesedez, ez joan inguruko herrietara ezinbestekoa ez bada, eta gogoratu nahitaezkoa dela guztiok higiene- eta segurtasun-baldintzak zorrotz errespetatzea, denon osasuna dago-eta jokoan.

Zaindu zuen burua eta zaindu ingurukoak!

Ataunen, 2020ko urriaren 23an.

